



AZPEITIKO UDALEAN LEHEN HARRERA EGITEKO PROTOKOLOA

PRINTZIPIOAK:

Azpeitiko udaleko harrera-protokoloaren definizio zehatza eta bere inplementazioa gidatuko dituen printzipio nagusiak honakoak dira:

OSOTASUNA. Harrera-protokolo honek herritar guztiak izango ditu xede, Azpeitira etorri berri diren biztanle guztiak, soilik horrela ziurtatuko baita dibertsitatearen onarpenean oinarritutako aukera-berdintasuna.

ZEHAR LERROTASUNA. Arlo guztien inplikazioa lortzea ezinbestekoa da, harrera-protokolo hau arrakastatsua izan dadin. Beraz, berariaz landuko dira sail guztietako kideen sentsibilizazioa, formazioa eta koordinazioa.

ANIZTASUNAREN AITORTZA eta ZAINTZA ziurtatzea helburu goren du protokolo honek aberastasun-iturri bezala. Arreta berezia jarriko zaio, batez ere, kultura eta hizkuntza aniztasunari.

ELKARBIZITZA. Harrera-protokolo honen nahia da elkarren errespetuz, eta mesfidantzen gainera bizikidetzat sendotzea.

PARTE-HARTZEA. Protokolo honek gizarte osoaren inplikazioa proposatzen du proiektu partekatu bezala. Beraz, ahaleginduko da bertako jatorria duten biztanleen sentiberatasunarekin batera parte-hartzea ere aktibatzen.

AUKERA-BERDINTASUNA. Biztanle guztiek dituzte eskubide eta betebeharrak; beraz, justizia sozialaren izenean, saiakera berezitua egingo da ziurtatzeko egoera zaurgarrian egon daitezkeen pertsonen aukera-berdintasuna.

GENERO IKUSPEGIA. Egungo gizarteak duen egiturazko emakumeenganako desberdintasunak eskatzen du ekimen publiko guztietan diskriminazioa eragin dezaketen jardueretan erreparatzea, are arreta handiagoarekin diskriminazio-mota desberdinak uztartzen direnean (erlijioa, jatorria, kultura, sexu-joera etab.). Harrera-protokolo honek, beraz, hurbiltasun esplizituarekin tratatuko du genero-ikuspegia eta beharrezko diren neurri zuzentzaileak aplikatuko ditu bertan proposatzen diren ekimen guztietan.

EUSKARA hizkuntza erdigunera ekartzea. Azpeitian hitz egiten diren hizkuntza guztiak aitortzeko eta zaintzeko borondatea du protokolo honek. Ezinbesteko egitekoa du, ordea, euskara jardueraren erdigunera ekartzea, bertako jatorrizko hizkuntza izanik, abian duen biziberritze-prozesuak biztanle guztien parte hartzea inplikatzeko duelako. Horrela, euskarak



gizarteko parte izateko duen balio ordezkazina dela eta, guztion arteko kohesioaren balioa ere aitortuko zaio; eta, beraz, protokoloak ziurtatuko du harrera-prozesu osoan presente egongo dela.

PROZEDURA:

Protokolo honek Azpeitiko udalera erroldatzera pertsona berri bat etortzen denean udal barruan zein pauso segi behar diren azaltzen du.

1.- Herritar berria erroldatzera datorrenean, erroldako langilearekin izango du ziurrenik lehen kontaktua. Lehen harrera beraz HAZeko langileak egingo dio eta erroldan izen ematea gauzatuko du.

2.- Erroldan izena eman eta gero, udal langileak harrera gida emango dio. Bertan txertatuta ohar bat egongo da ongi etorri saioa egingo dela adieraziz. Gida ematearekin batera alkatearen ongi etorri saiorako gutun bat jasoko duela ere esango dio eta ongi etorri saiora gonbidatuko du. Lehen kontaktu honetan ongi etorri saioen garrantzia azpimarratuko da: herria ezagutzeko eta bertan bizitzeko informazio garrantzitsua jasoko duela esango zaio.

Gutuna: euskaraz eta etorri berriaren hizkuntzan egingo da ahal bada, baina gutxienez, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta arabieraz egongo da, printzipioz, orrialde berean. Euskarazko bertsioari lehentasuna emango zaio eta hasierako ohar bat txertatuko da ondoren gainerako hizkuntzetan dagoela esanez. Gutuna posta bidez jasoko dute eta gero telefonoz deituko zaie asistentzia konfirmatzeko. Gizarte Zerbitzuetako administratzailea arduratuko da/dira deien kudeaketa bideratzen eta telefonoz deitzean berariaz osatutako plantillako galderak egingo dizkio.


3.- Ongi etorri saioa baino 15 egun lehenago Gizarte zerbitzuetatik gutuna bidaliko da ongi etorri saioa prestatzen hasteko.


Garrantzitsua da erroldaren datuak bildu orduko, eskutitzak bidaltzeko prest izatea eta lehenbailehen bidaltzea, datuak jaso eta eskutitzak bidaltzen diren arteko tartean inor gonbidapenik gabe ez gelditzeko. Ongi etorri saioa hurrengo hilabete bukaeran izango da, eta horrela hilabete izango da saioa prestatzeko.

4.- Ongi etorri saioa hirutan egingo da, printzipioz; otsailean, ekainean eta azaroan, eta data hori eskutitzean jarrita egongo da. Beharren eta etorreraren arabera moldatzeko aukera aztertuko da.

5.- Etorri berriak hasierako oinarrizko informazioa jaso du eta ongi etorri saioan udaleko eta herriko informazio osatuagoa jasoko du, eragileekin batera egingo den saioan.

6.- Urtero prozedura hau errepasatuko da eta beharrezkoak diren egokitzapenak egingo zaizkio.







BARNE EGITURA:

Proiektuaren garapena bermatzeko ezinbestekoa da Udal barneko egitura antolatzea. Horretarako honako egitura hau aurreikusten dugu:

- **Talde eragilea:**

Batzorde hau izango da proiektuaren gidaritza eramango duena. Bera arduratuko da egin beharreko lanak gainbegiratzeaz. Urtean behin bilduko da, urtarrilean aniztasunen lanen planifikazioa egiteko; ekainean lan horien jarraipena egiteko eta azaroan ebaluazioa egiteko.

Partaideak:

- Gizarte zerbitzuetako zinegotzia
- Hezkuntza zinegotzia
- Gizarte zerbitzuetako arduraduna
- Hezkuntza teknikaria
- Gizarte zerbitzuetako teknikaria

- **Lan taldea teknikoa:**

Talde honen ardura izango da ongi etorri saioen prestaketa eta ebaluazioa egitea. Horretarako, ongi etorri saioen aurretik elkartuko da saioa prestatzeko, eta, saioen ondoren, ebaluazioa egiteko.

Partaideak:

- Gizarte zerbitzuetako teknikaria
- Hezkuntza teknikaria
- Gizarte zerbitzuetako administraria

- **Gaiaren araberako bilerak:**

Aurrez ikusi ditugun bilera horiez gain, beharren araberako bestelako bilerak edo lan taldeak aktibatu daitezke.